



Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 39. zenb. 1997ko urria. 100 pzta.



Izerdi patsetan

- I. Zakila
Birarako dena
prest dago
- Enbildarrak zein
baino zein
indartsuago

Elkarrizketa

- Ximon "Porte",
geldirik egoten
ez zen gizona


Azken ikutuak ikastetxe berriari

**Zumaiako Fototekak
utzitako argazkia**



Lehengo paolbidea

1940-50 inguruko argazkia da hau eta ikusten dezuen bezela, paolbidea da. Garai batean «Avenida del Conde de Vallellano» izena zuen, eta gaur egun Julio Beobide ibiltokia izena darama. Ez jardintxorik, asfaltaturik gabe... Hori bai, espaloiko farolak berdinak dira, ezta?



En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzako Kultura Sailaren
dirulaguntza jaso du



ZUMAIAKO UDALAK
lagundutako aldizkaria



BALEIKE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea
 tfnoa: 86 10 56
 faxa: 861742

argitaratzailea
**ZUMAIAKO
 GAZTE
 BATZORDEA**

Iantaldea

**Iratxe Aizpurua
 Esther Martinez
 Eneko Dorronsoro
 Xabier Azkue
 Igor Uranga
 Josu Waliño
 Gorka Zabaleta
 Juan Luis Romatet**

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub taldea,
 Natur Taldea, Josu Aizpurua,
 Ladis Rivas, Dani Carballo,
 Zuzpeltu kultur taldea,
 Asier eta Fran, Abelintxo,
 Miriam Romatet, Ainara
 eta konpainia, Amaia Benito, Jon
 Manzisidor, Josu eta Arantxa,
 Igone eta Nerea, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 1.000 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

BALEIKEk ez du bere
 gain hartzen aldizkarian
 adierazitako
 esanen eta iritzien
 erantzukizunik.

Ze berri?

Santixon zuloak eginez
6 or.



Festak:

Giro eta eguraldi ederra
 San Migeletan
9 or.

Egiten dugu euskaraz?

Azkenaldi honetan ez dirudi, behintzat, euskaraz txukun egiten dugunik. Izan ere modan jarri zaizkigu era honetako esaldiak: *bihar 9etan geratzen gara, zinera joaten gara eta gero pote batzuk hartzen ditugu; mugitzen gara hemendik?; Garbera iristen da, abuztuaren 26an inauguratzen da* (iragarki baten testua)...

Adibide hauek ikusita argi eta garbi ikusten da gerokoak direnak orainaldiko formekin ematen direla sarri samar, eta forma hauen atzean gaztelaniazkoak daude ezkutuan: *quedamos, vamos*, eta abar. Lehenaldiko kasu batzuekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Itxura denez jendeak euskaraz eta gaztelaniaz aditzek berdin jokutzen dutela pentsatu du. Zertarako ote dauzkagu, orduan, euskarazko beste forma hauek: *elkartuko gara* (edo *elkar gaitzke*), *joango gara, hartuko ditugu, mugituko al gara, iristear dago* (edo *badator*), *inauguratuko da*...

Okerrena da moda hau ez dela gaztetxo edota euskaldunberrien kontua, ikasketa guztiak euskaraz egindakoak, euskaldunzahar peto-petoak ere erori baitira "tranpa" honetan. Kanean (eta beharbada etxean ere bai) adi-adi jarri, eta horrelako aditzak entzun ondoren belarriko minik sentitzen ez baduzu... KONTUZ!, zu ere "kutsatuta" egon zaitezke-eta.

Ez dakit ziurtasun osoz azkenaldi honetan euskaraz nola egiten dugun, baina aurrerantzean, INGO AL DEU?



**Xabier
 Azkue**

**PREMIAZKO
 TELEFONOAK:**



Kultur Etxea86 10 56	Ludoteka..... 14 32 64
Polikiroldegia.....86 20 21	Tren geltokia..... 86 11 27
Gurutze gorria.....86 10 93	Taxi geltokia.....86 13 60
Udaletxea.....86 02 50	Bake epaitegia.....86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....86 22 00	Posta..... 86 15 00
Osasun zentrua.....86 08 62	Udaltzaingoa..... 86 18 70
San Juan Egoitza.....86 12 73	Pilotalekua.....86 21 72
Pentsiodunen Egoitza...86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....46 11 11
Musika eskola..... 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia...86 02 48
Alkoholikoen senideak...47 54 03	Sexu-informazioa.....32 04 44

Euskal gatazkari buruzko Foroa Zumaian

Zumaiako Elkarri

96-97 ikasturtean zehar euskal gatazkari buruzko Foro bat egin dugu Zumaian, Elkarri mugimenduak antolatuta. Alderdi politiko eta sentsibilitate desberdineko jendea bildu gara hamabost egunean behin, Foronda kultur etxean 1996ko udazkenetik 1997ko ekaina bitartean. Batezbeste 12-15 pertsona bildu gara, Zumaiako Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztietakoak (EAJ, HB, EA eta PSOE), ordezkariarik ez duen alderdi batekoa (IU-EB) eta jende independentea.

Euskaldun eta erdaldunak biltzen saiatu bagara ere, ia-ia jende guztia euskalduna zen, eta beraz, saio guztiak euskaraz egin dira. Beraz, Foroan ez dira Zumaiako sentsibilitate guztiak bildu.

Hasieran programaturako gaiak hauek ziren: presoak, biolentzia, autodeterminazioa, giza eskubide indibidualak eta kolektiboak, hizkuntza eta lurraldetasuna. Hala ere, zenbait gai aldatu egin dira, eta «gaur egungo egoera» (euskaldunon arteko enfrontamendua, kale borroka...) aztertuz amaitu dugu.

Normala den bezala, oso iritzi desberdinak plazaratu dira foroan, baina adostasun maila altuak lortu ditugu puntu hauetan:

- Gatazka honi irtenbide elkarrizketatua eman behar zaio.
- Presoen eskubideak errespetatu egin behar dira eta Euskal Herrira hurbildu.
- Euskara bultzatu egin behar da, eta horrek elkartu egin behar gaitu.
- Gatazka honetako galtzaile nagusiak euskaldunok gara, geure arteko zatiketarik probetxu handia ateratzen duelako Estatuko gobernuak.

Foroan parte hartu dugunon iritziz, oso esperientzia positiboa izan da, gutxitan izaten dugulako hain pentsakera desberdinak dituzten pertsonekin lasai hitz egiteko aukera.

- Hasieran tentsioa nabarmentzen zen, baina pixkanaka-pixkanaka giroa lasaitzen joan da, eta azkenean konfiantzaz eta lasai hitz egiteko aukera izan dugu.

- Normalean erraz ipintzen ditugu etiketak, baina foroan gai izan gara etiketak kendu, eta etiketaren atzean dagoen pertsona aurkitzeko. Sorpresa bat baino gehiago izan ditugu gutako askok.

- Oso interesgarritzat jo da besteak esandakoak entzuten ikastea, nahiz eta ez izan gustokoak.

- Hitz egitea oso ona da. Komunikazio onaren beharra daukagu. Ezin dugu bakoitzak bere aldetik segi, bakoitza bere txokoan sartuta.

Ikasturte honetan ere jarraitzeko asmoa dugu. Beraz, interesik baldin baduzu, deitu mesedez 148306 edo 148065 telefonoetara eta Josebaz galdetu.

GUTUNAK



Ion Martija eta bere kuadrilari

Zuen gutunari erantzunez. FRONTOIA DENONTZAKO DA ETA PILOTAN JOLASTEKO, orain arte izan den bezala. Zerbait kontatu nahi baduzue, onena, dena kontatzea izango litzateke.

Hiru edo lau egun zenbiltzaten, frontoira etorri eta pepitaz, lataz eta zigarroz zikintzen eta nik ez nuen ezer esan.

Handik egun batzuetara, kantxara botatzen hasi zintzen. Hori ikusita, hurrengo egunean jolastea galerazi nizuen, nire arrazoiak emanda.

Egia da, zuek ados jarri zinatela frontoia garbitzeko, baina hori nire zeregina da eta ez daukazue zikinkeriarik kantxara bota beharrik.

Zuen ostean jolastera doanak eskubide osoa dauka kantxa garbia aurkitzeko. Zaila da zuen izen-abizenekin udaletxera joatea, ez dakizkidalako, oraingoz behintzat.

Hortik aparte, ez da zuen kontua zer edo zertan aritzen naizen. Hemen izorratzen ari diren bakarrak zuek zarete. Eta azkenik, frontoia denontzat denez, denok daukagu, frontoia garbi edukitzeko eskubidea.

Frontoiko atea irekita daude, DENONTZAT, BEHAR DEN BEZALA ERABILTZEKO.

Jose Luis Alvaro.
Frontoiko arduraduna.
NAN:15.966.812

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak




Zunbillo 4
Tlf: 861407

ROSI
GARBIKETAK

- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auzo lanak
- Erropa garbiketara eta tintaketa

Basadi 3-A
Tlf. 861670



ITSY-BITSY

SCHOOL OF ENGLISH
Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2 Tel. 862373



DANIEL CARBALLO

Fruta ximelez eginiko konpitura

1.- Udarar bukatzeaz dagoen egunotako batean, azkura sentitu eta ohizkoa dudaz bezala, harraskatu egin nintzen. Azala altxa zitzaidan, izugarritzko erraztasunarekin; nire gorputza aspalditik ezagutzen dudanez konturatu ere konturatu nintzen, urteroko azal aldaketa nuela. Udarar egindako gehiegikerien ondoriozko azal aldaketa. Berrito leun-leuna bihurtuko den ilusioarekin, azal zaharra harraskatzeari utzi nion. Sugeen parekoak ez bagara ere, esanahia antzekoa emango nioke epidermi aldaketa honi. Garaiarekin aldatzen garaia gu ere. Ingurugiroarekin dugun harremanaren ondorioz, esango nuke. Batzutan eguzkiak, haizeak eta beste batzutan udarako parrandek azalean eragin handia izaten dutelakoan nago.

2.- Azalarekin batera, eta esandako arrazoi horien eta beste hainbat arrazoiaren ondorioz, barnelaldean dabilkigun beste zera... hori ere aldatu egiten zaigula esango nuke. Udarar, opor garaia, festa garaia eta egonaldi erakargarrien ondorioz, barnean dabilkigun muermo txiki hori ezkutu samar ibili zaigu. Hau izanen da garaia berrito esna dadin; gure zera... horretaz jabetu eta udara garaiko erresaka luze batean murgiltzeko. Neure buruari zer dudaz galdeginda ere, arrazoi garbirik aurkitu ezin egoera arraro honi erantzunik emateko.

-Dotor, ke me gerta? - galdetu nion, ikasitako norbaitek zerbait berria esango zidanaren asmoarekin.

-Iraila mutil, iraila.

Ez nion denbora gehiago kenduko. Hau ez da sendatu beharreko gaixotasuna eta.

3. Abuztutik hain hurbil, eta aldi berean hain urrun dagoen hilabete honetan, egunak motzagoak izaten hasten dira; bederatzitarako iluntzen hasi eta goizeko zazpiretan oraindik gaueko iluntasuna somatzen da. Irailean eskola dator, lana, hotza, egutegi berria, liburuak, hasperenak. Eta askok eguneko ordu asko pentsatzeko izanen dituzte; zer egin pentsatzeko denbora. Aspertzea gaizki balego bezala.

Melankolia neurtuz gero, alaitasuna bezain osasungarria da; beharrezkoa esango nuke. Gozatzen ikasi behar, melankolia eta nolabaiteko tristura honekin, aisialdi lasaiak igarotzen. Orduak pasatzen ikusi. Afrikar kultura batzutan, osasuntsuena ez da zerbait egitea, ez egitea baizik; ordurarte bizitzak eman diguna aztertuz eta begibistatik pasaz. Etxean, pasian, edo lagunekin.

4.- Irribarrea erabiltzen dudanean ez da askotan alaitasunaren ezaugarri, tristura baten ezkutua baizik. Zergatik ezkutatu behar dudaz ulertu nahirik. Ongi pasatze ohitura honetan, tristepasak ez baitaude begionez ikusita; uxatu beharreko gaitz bezala jotzen baitira. Abuzturik gabeko Irailik ezin ba aurkitu tristurarik gabeko irribarrerik aurkitzen ez dugun bezala. Garaia da, erreflexio txiki hauek egiteko, bakoitzaren existentziari zentzu desberdinik aurkitzeko, beharrezko badu, edo besteik gabe hitz egiteko. Fruta zimeltzeaz gaitzotu baino lehen, konpitura bihurtzen badugu, gozoaldia luzatzen diogulako.



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA,
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412

ΔΙΖΜΑΝ-ΚΟΣ S.L.

SANEAMENDU ETA
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta auzoa z/g Tel/Faxa:
78 postalutxa 148124
20740 IRAETA-ZESTOA

BELARDENDA
SIWA



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Santixoko paduran zuloak eginez

Irailaren 19an eskabadora handi bat Santixoko paduran sartu zen, juxtu astilleroen alboan. Handik zebilen jendeak ustekabekoa handia hartu zuen makina paduran zuloak egiten hasi zenean. Hasieran batean kirol portuaren obrak hasiak zirela pentsatu zuten askok, baina ez zen horrela. Eskabadorako langileak azaldu zigunez, lurrazpian zer nolako materialeak zeuden ikustea zen helburua, kutsagarriak ote diren edo beste inolako kalterik sortarazi zezaketen jakitea. Zonalde hori «relleno» edo betetzekoa izango da toki horretan egin nahi den kirol portuaren proiektuaren arabera. Udalaren baimena bazutenez, zuloak egiten aritu ziren, paduran inolako material berezi edo kaltegarririk ez zegoela egiaztatu arte.



Zulo handi samarrak ere egin ziren Santixoko paduran.

Erlaxi arrantzuntziaren botadura



Irailaren 17an beste botadura bat ikusteko aukera izan genuen. Oraingo honetan Balentziaga Astilleroek arrantzuntzi bat itsasoratu dute, «Erlaxi» izenekoa, Ondarroako Larrasmendi enpresak enkargatuta.

Untzi berri honek ia 33 metroko luzera du eta 15 pertsonentzat dago egina. 800 zaldiko potentzia duen motorra dauka eta Gran Solen arrantzan egiteko pentsatua dago. Balentziagak azken 2 urtetan egindako ezaugarri berdineko bigarren unzia da orain uretan jarritako hau.

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2

A stylized illustration of a key and a lock, with the key inserted into the lock. The key has a circular head with a small figure on it.

A small illustration of a building with a gabled roof and a chimney.
ERTZ
INFORMATIKA
INTERNET IKASTAROA
OFERTA:
PENTIUM 166
CD-ROM
Koloretako inprim.
Mendaro Mariñela 3,
TEL. FAX. 14 33 95

A black and white illustration of a person sitting at a desk, using a computer. Another person is standing behind them, looking at the screen.

Igerilekua lehen fasean

Igerilekuko lanak bere lehen fasean sartuta daude jadanik eta momentu hauetan lehen demolizioak, lur mugimenduak, saneamendua eta bestelako gauza batzuk egiten hasi dira. Aurkeztu ziren 5 enpresen artean Zaldibiko SUKIA enpresa aukeratu da lan horiek burutzeko.



Guztira, hasierako lehen fase honetarako 80 milioi pezeta gastatuko dira eta honen finantziarioa bi zatitan banatuko da. Lehenengo 43 milioi pezetak Udalak aurtengo aurrekontutik hartuko ditu eta gainontzeko 37 milioiak datorren urteko aurrekontutik.

Gauzak behar bezala joaten badira, sei hilabeteren buruan amaituta izango dira lehen lan hauek. Hau amaitu ondoren, eman beharreko beste pausoei ekingo diete eta proiektu honen arkitektoek azaldu diguten bezala, 1999. urteko maiatzean igerilekua erabat amaituta egotea espero da.

Laburrak

Zubi zaharra konponduz

Amenabar enpresa izango da Astilleroetatik itsas kiroldegira doan zubia konpondu eta berrituko duena. Lan honetarako bera bakarrik aurkeztu zen eta iragarpenak betetzen badira, hilabete gutxi batzutan guztiz berrituta egotea espero da. Lanok, 40 milioi pezeta baino gehiagoko kostua izango dute.



Frontoiaz nor jabetuko?

Hor dabilta lehia bizian frontoiko esplotazioaz nor jabetuko. Orain dela aste batzuk erabakita egon behar zen, baina azkenean atzeratu egin zen erabakia. Dena den, egunotan jakingo dugu nor jabetzen da frontoiko tabernaz eta kantxaren zainketaz. Kontratu berri honek bost urterako balioa du.

HB ren mozioa onartu ez

Herri Batasunak Irailaren 18an egindako plenoan aurkeztutako mozioa atzera bota zuten beste alderdi guztiek. Mozioa, bakearen aldeko pankarta bat ikurrinarekin batera Zumaia ikusteko moduko leku batean jartzea zetzan. Gobernu Batzordeko alderdiek ordea, honen ordez beraiek aurkeztutako mozio alternatibo bat onartu zuten.

4 urte Txato hil zutela

Irailaren 26an zenbait ekitaldi antolatu ziren Xabier Kalparsoro Txatoren oroimenez. Lehendabizi omenaldi bat eskaini zitzaion Algorriko labarretan eta ondoren



manifestazio bat egin zen herrian zehar. Aipatu beharra dago zubi txikian ertzainek zenbait istilu eragin zituztela, hasiera batean adostu bezala manifestariak karril bakarretik zihoazen arren, ertzainek ez baitzieten pasatzen utzi nahi. Zenbait «pelotazo» bota zituzten airera, kamara batez dena grabatzen aritu ziren eta une batean bi gazte harrapatu eta atxilotzeko keinua egin zuten, azkenean partaide guztien artean galarazi zuten arren.



ZUMAI A



AUTO -ESKOLA



- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAI A



TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

Kirol portuko lanen adjudikazioa oraindik erabakitzeke



Irailaren 30ean Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak bilera bat burutu zuten, kirol portuko lanak nork egingo dituen erabakitzeke. Erabakia ez zen, ordea, egunean bertan hartu. Orduan sobreak ireki ziren eta pare bat aste baino lehen jakingo da lanak nori aginduko zaizkion. Bilera egiten ari ziren bitartean, zenbait herritarrek proiektu honen aurkako iritzia agertu zuten, zenbait pankarten bidez.

Untzien maketa erakusketa

Irailaren 26tik eta hilabete hau amaitu artean, itsasuntzien maketa erakusketa interesgarri bat ikusgai dago Beheko Plazako Zaharren Egoitzan.

Bertako Beheko Plaza elkarteak antolatu du, aurten Zumaia sortu zela 650. urteurrena ospatzen dela aprobetxatuz. Gainera, datorren urtean Hogarrak edo orain Gizarte Zentrua denak datorren urtean 25 urte beteko ditu inauguratu zenetik.

Erakusketa honetan 39 maketa bildu dituzte, Bizkaiko eta Gipuzkoako herri ezberdinetako artistengandik jasotakoak denak.



Irailaren 26an egin zen aurkezpen ekitaldian hainbat pertsonalitate eta agintari bildu ziren. Honez gain, Lourdes Odriozola historialariak hitzaldi bat eskeini zuen. Gaia: «Untzigintzaren historia Zumaian».

Dakizuenek, untzigintza industriak herrian garrantzi handia izan du. Bere garaian Gipuzkoako garrantzitsuenetakoa izan genuen. Beraz, aukera polita dugu orain erakusketa erakargarri eta ezberdin honetaz gozatzeko.

ZALLA
Taberna - Erretegia
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

Paki 
Belardenda
OSASUN NATURALA
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnua: 861160
ZUMAIA



AEKren pintxo lehiaketa arrakastatsua

Jende asko bildu zen Kopraian egindako «festa» honetan, tabernari askok hartu zuten parte, eta epaimahaikoak ere oso serio aritu ziren, denak banan-banan probatu eta oharrak hartuz. Azkenean nork irabaziko lehiaketa eta Nikol Enea tabernak, juxtu gaur egun pintxorik ematen ez duen tabernak. Moises Egañak prestatu zituen pintxorik onenak, eta aipamen berezi bat egin zitzaion Txiringitoko Beñat Arroiaberi, ostarrenaz apainduta aurkeztu zituen pintxoengatik. Hura burruka, hura, jendea sobratutakoa jaten hasi zenean!!



San Migelekin batera amaitu zaizkigu herriko eta auzoetako jai guztiak. Giro bikaina egon zen Artadi aldean: kontzertua, zezenak, jokoak (argazkiko txapel jaurtiketa adibidez), dantzaldiak, bertsolariak, pelota partiduak, txakolin dastaketa, bertsolariak... eta gainera, eguraldiak lagundu zuenez jende ugari bertaratu zen paraje eder honetara.

*Bukatu dira
herriko festak!!*



JZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

ANA
ETXERKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
Tel. 861157

Maiaur
olastokia

Iregian onena, atleta bikaina, itxasuan ibilitakua, txofertzan, estraperluan'e bai... majina bat abentura bizi izan ditu Ximonek

Ximon Elosua «Porte»

75 urte hauetan. Jende askok goguan izango du Ximonek indakua; izan'e, 12 lagunek zor diote bizia.

Geldi egoten ez zan gizona

ITZUNEN FAMOSO BAT ATERA OMEN ZINUN BEHIN...

Bai. Eduardo Flaquer, Espāniko raketistaik onenetako bat. Bea ittota atea nian eta semia salbatu, Eduardo Flaquer Goikoetxea. Hara! eskumuturra nola izorrrauta geatu zitakan nei, eskaiolauta neola. Itzunen 3 urte eman genitian bañero. Orduan trajia pañozkua ibiltzen huan eta zoyer zanian hura kenduta jun in bihar.

NOLA IZAN ZAN SALBAMENTUA?

Han aplikatu nitxuan orduan. Nik goitikan ikusi nian, peligran zeola, aldameneko bati esan nitxuan. "haiek gaixki ziazatik". Inor'e ez huan moitu eta nik jun bihar izan nian. Etorri nitzanian, salbauta, eskaiola in zitakan dana trapua geatu. Ajuria meikua jun huan eta esan nitxuan "Don José, ¿y esto qué?", "¿Esto? ¿Majadero! Ya puedes cortar". Hortik aurea izorrai, gaixki geatu eskumuturra.

HORI ZE URTEGAN IZAN ZAN AKORDATZEN AL ZEA?

Cuarenta y nueve-cincuenta, cincuenta y unon diploma eman zien. Harrezkeo mutila hirutan izan omen dek Zumaxan. Aman atta zea zian, director de la moneda española'o, eta atta raketista, eta itto zanian hari ez ziabeau autopsiaik edo ezerre in, Don Jose han zan bitartian etorri huan anbulantzia, eta directo a Madrid.



Azken urteotan neguan Benidorm aldean juten da Ximon «han klima hobia zioke»

BAÑERO EGON ZINAN BITARTIAN SALBAMENTU GEHIXO ITIA TOKATU AL ZITZAZUN?

Bai, bi emakume azpeitiar ere bai. Beste bat ere bahuan hor zumaiar bat nik esan "Hi, gaur itxaso txarra zioke eee!" eta beak "Hik erakutsi bihar al dek iregi nola iten dan?". Eta nik esan nitxuan "Segi, segi, alperrik dek auxiliuxa eskatu, ni enauk horrea jungo ta". Ta larritu zanian Trini Bidasorok jun da atea zian. Trinik orduan iregian ondo iten zian, Zumaian gutxik bezela.

HORI BAINO LEHEN SALBATU AL ZINUN INORRE?

Arranplan ere ibili nitxuan ni

horretan. Hamabi edo etzekiat hamahiru ote dian nik ateatakuak, danea; hamahiru izango hitxuan. Aplikauta horrelaxe. Kortan semia bat. Erori huan Etxabe Kuartoneko eskaitetako horretan, eta nik moila berritik salto inda atea nian. Ez dek ingo eta ez dek ingo eta grua handixan gainetik'e salto in nian behin. Eta tren zubitik'e bai, bost durotikan. Ordun diru asko huan bost duro.

ZEINEKIN IN ZINUN BA APOSTU HORI?

Beraneante batzukin. Bedura meriendeta guazela, motorrakin, Bixente Tximo eta bixok. Ordun jende asko juten huan hemendikan

INPERNUPE ELKARTEA

Erribera kalea Telefonoa: 861523

ZUMAIA

ekin

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
INSTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Tel. - Fax: 14 30 97
TAILEERRA: Larretxo, 10 behe 1^a - Tel. 14 34 74
20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)

SUKALDEKO ALTZARIAK

DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basidi Auzategia, 10 behe
Telefonoa: 862051

20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

marietan. Hara guazela "¡Vaya altura!" ta konbertazixuan hasi gitxuan da salto ezetz! ta baietz, ta "¿cuanto dan?" eta "Cinco duros". "¿Eh? Arrima". Bixentek motorra bazterreatu eta salto! Eta gero meriendeta.

SALTAKA ERE IBILTZEN OMEN ZINAN.

Saltaka're bai, medaila bazikat Luistarretakua. Año cincuenta y tres. Hotel Amayako jardinetan. Pedro Balenziaga usten det nula laguna, bat behintzat, relebotan. Saltuan da ibiltzen zana, Joxe Uribe, ta danak prepaauta, galtza motzakín, ta ni luziakín. Eta irabazi. Medaila batzuk irabazi nitian ordun. Luistarrak urtian-urtian organizatzen zien kanpeonatua.

SAN JUAN SURTAN'E HAMAIIKA SALTO INDAKUA ZEA ZU.

Ordun zein zan ibiltzen ez zana? Danak ibiltzen gitxuan. Txaperuak ni zaitzen eoten hitxuan, Txinbi eta Karrantza. Hoiek alde batian, nik bestaldetikan danba! Suik haundixena zeonian, nik lehenbizi salto. Ez zen utzitzen ordun salto iten.

FUTBOLIAN ERE IBILIA ZEA.

Bai. Mondragoira danak, billete colectivo, Maltzagara; Maltzogatik Mondragoira. Behin beste batzuk esan ziu "odolestea eta merke zio hor, ona". Sartu gitxuan eta guk eskatu, olki bana boteila arduakin. Jende asko hasi huan sartzen, zumaiarrak, eta "Oaintxe zio hamen sasoi" eta anda dios!, bate patu gabe kalea!

Azkoitian, berriz, zumaiarrak juten zianian danak amorratzen, "Aiba dios, hamen txuk zumaiarrak". Ta danak saltaka Atalagara; izen hori zian «atea ahala

patu» bihar izaten zalako. Lehenbizi aileatzen zanak, baso ardua, propaganda. Partidua izaten zianian danak hara jun, atea lau baso edo bost, eta beste danak behera jun da barrikatikan.

«Tren zubitik'e in nian behin salto, bost durotikan. Ordun diru asko huan bost duro»

Plaierotan'e Zauztik kopa bat ekarri genian, debarren kontra. Gorrauak ziala ta... Karlox Aperribai eta bixok defenza.

ARRAUNA ERE PROATU AL ZINUN?

Bai, oaintxe anibersaixua, cincuenta años, Makazaga patroí gendula. Lehenbiziko trainerilla, Zumaitik erten zuna. Hanketik Mariano Xoxua, proel Aristi, Joxe Mari Torre San Mielkua, Ruben, neu eta beste bat. Donostin jokatu genian,

ta oriotarra genian patroí.

ITXASUAN ERE JARDUN OMEN ZINUN LANIAN.

Bai, arrastrerotan. Pasaitik ibili nitxuan, ta gero bakailutan'e bai, Alonsotarren arrastrerotan. Kariñokin'e bai, barkua in zunian, el año setenta y tres. Bi urte in nitian han, ta gero Orixora, itxasotik jubilau arte. Danetan makinista ibili nitxuan. SAN TELMO MAITTEKO DEZU ORDUAN?

Asko. Hamabi urte izango txuk San Telmotan etorri ez naxela, baina difuntuetako mezetako bati lagatzen diat dirua emanda.

BESTELA ZE-NOLAKO LANETAN IBILI ZINAN?

Bestela txofer, gehixena txofer. Gero atzea txofertza laga eta itxasoa. Bestela txofer arraiakin asko: Bartzelona, Valentzia... Sevilla're bai, handikan Huelva pasa, Huelvan arraia kargatu eta Madrida, eta Madridetik txatarra Beasaina edo Legazpira.



Garai hartako Komandante Marinak, Marquina jaunak, eman zizkion diploma eta medaila.

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza 15
Tel. 862458



KALARI
TABERNA

Zuzendaritza berria

- Eguneroko bazkaria
 - Pintxo eta bokatak
 - Koadrilentzako menu bereziak
 - Kazuelitak eta plater konbinatuak
- Erribera kalea 16 Tel. 86 25 17

LEIZE

Juan Belmonte 6

ZUMAIA

Tel. 860415

ESTRAPERLUAN IBILTZIA ZER ZAN PROATU AL ZINUN?

Bai, behin harrapau in zien nei, gainea, en el alto de Arlaban, Vitoriko bide horretan. Orduan Elgoibarko panadei batea garixa ekartzen nitxuan, olixua're bai. "¡El carnet de conducir!" esan zien, eta nik "No llevo, estaba aprendiendo". "¿Cómo que no?" eta nik "¡Si ando en la mar!". Ordurako gordeta nian nik» karneta, bestela baneketxian ba kendu iten zuena. Handik astebetea presentatu bihar izan nian eta "con que no tenías carnet, ¿eh?". Ajurrian iloba huan orduan fiskala, Vitorixan, Abastosetan.

Atxurrenien genian garajia. Katxarrua prepaatu estraperlua ekartzeko ta guardia zibilak etortzen hitxuan laguntzea, olixua edo garixa eramateatikan.

«Guardia zibilak etortzen hitxuan laguntzea, olixua edo garixa eramateatikan»

ETA SUSTOIK EDO EZ AL ZINUEN IZAN?

Bat bai. Caceresen oki genian guk azidentia, estraperluan gabiltzala. Mercedes zahar handi batian gitxuan, 400 kilo olixokin; orduan kiloka ibiltzen huan olixua, ez litroka. "Dionisio, vete despasio" ta "Ke ba, es buena carretera". Nik ikusi nunian, anda dios, baneketxian zubiko kurba nola zan, eta nik salto. Ta han jun hitxuan goitik behera: bat hil ta bestia herituta. Orduan bi kostila hausi eta hiru egunian Caceresko Hospital San



Gaur egunian gaztetako sasoia balu, nun eta zertan ote leoke Ximon?

Josen eon nitxuan, eta Vitorikua nerekin batea, jata zizko inda. Txoferra hil, katalana. Gero Cacerestikan itxea.

ABENTURA GEHIXO ERE PASAKO ZINUEN.

Behin kamioi haundia ekarri zien, ejerzitoko subastan erositakua, 10 toneladakua. Hamen prepaatu, kajak eta pasantiak eman ta "hau ez dek lehertuko" esan zian batek. Zaragozatan belaxe lehenbiziko biajian lehertu huan, ta txori danak segika, garixan atzetik. Ni automoila ekartzea jun nitxuan, ta hango apaizak ze esan zittun? "Nosotros con hambre y vosotros aquí, así, ¡criminales!". Herri txiki bat huan, ta automoila hartu ta buelta. Baina atzea berriz'e laste harrapatu zien, hirugarren eguneako. Eta gero kieto automoil hura, gehixo ezin moitu.

EZ AL ZAN PELIGROSUA?

Bai, baina... Batek bidiak irikitzen zitian. Behin Briviescan hiru

egun lehen lagunak harrapau zitien han bertan, eta gutako bat bizikletakin aurreatu huan "Nik linternakin seña iten badet zuek erten, ez dek guardia zibilak eongota". Ta-ta, linternakin argia ta "Bah, ez zioz inorre; avante". Usurbilgo bat eta bixok, neu konduzitzen, aldapan behera. Joder, gure laguna ikusi baino lehen ikusi nian guardia zibilak non zaben. Mekauen. Kurba hartu nunian erten zian: Dak. Han dek pa! Dak, dak. Tiruak. Azeleratu in genian. Aurretik libre ikusi ezkeo, "atzetik bota, nahi baldin badek", ez dek pasako ez. Karrozei hura dana pasatzeako... Aileatu Armentia, sartu garajea, beitu ta hiru balazo atzian hartuta. Ra-ra-ra, masillakin eman, eta listo. Motoristak eta etorri hitxuan, baina guk ordurako garaje barroa sartuta kamiona. Egun osua in genian Armentian eta gabian Elgoibarrea deskargatzea. ■



OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA Tel. 143057



Amertze

Erribera kalea 6
Tel./Faxa: 861707

Zumaiako Herri Eskolaren eraikuntza berria egiteko lanak oso aurreratuta daude. Aurrera begira Herri Eskola honek dituen asmoetaz eta edifizio berriak eragingo dituen aldaketei buruz mintzatu gera Pantxike Larrañaga, Sabina Lopez eta Inaxio Manterola irakasleekin. Erreformak ekarritako berrikuntzak medio eta gai korapilatsu xamarra den arren, ahalik eta argien esplikatzen saiatuko gara.

Herri Eskolako eraikuntza berria amaitzear



Oraindik ere azken ikutuak eman behar zaizkio eraikuntzari.

Historia pixka bat eginez eta Zumaian herri eskolarik ez zegoen garaietara itzuliz, Zumea Ikastolak zituen toki arazoetan aurkitu dezakegu eraikuntza berri honen proiektuaren jaiotza.

Gerora, eta ikastola publikoaren ezbaiak nahikoa liskar sortarazi ondoren, Julene Azpeitia, Zumaiako Institutua eta Zumea Ikastolak bat egin eta Zumaiako Herri Eskola osatu zuten, eta

erakunde honek bultzatu du azken proiektu hau. Hasiera batean paperean egin zen hura gaur egunean forma hartzen ari da.

Eraikina Institutuaren eta Ayra Durex enpresaren artean dago kokatua, lehen hartxintzarrezko futbol zelaia zegoen tokian, alegia. Behekoa eta beste bi solairuz osatua dago eta 24 ikasgelaz gain, irakasleentzat gela, informatikako gela, laborategia, liburutegia,

musika gela eta tailer batez jantziak daude lehen eta bigarren solairuak.

Behean berriz, bulego eta artxiiboak, biltegia, areto handi bat, komunak, jangela eta gimnasioa aurki ditzakegu. Bestalde, eraikuntzak hainbat berrikuntza eskainiko ditu, hala nola elbarrituentzako ranpatxo zein igogailuak, insonorizatutako gelak (irakasleen ahotsa gal ez dadin), pertsiana bereziak...

ILE APAINDEGIA

Herria
Urangar

Ettezarreta, 19 20750 ZUMAIA
Telefona: 862342

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu 2
Tel: 143089

ZEMAR

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

Erribera 1 Tel. 860375

Eraikuntzaren inguruan, eta beti ere epe laburrera begira, kirola praktikatzeko bi kantxa egiteko asmoa dago. Edifizio honen eta Institutuaren artean bidexka bat egingo da biak komunikatuta utziko dituen. Inguru berriz, zuhaitzez eta zelaiez apainduko da. Gerora, gune hau estazio alderantz zabaltzeko asmoa dute.

Ikasleen banaketari dagokionez, honako modu honetan egiteko asmoa dute: Julene Azpeitian ibiliko dira Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloetan ikasten ari diren haurrak, bi urtetik zortzi urtera bitartekoak alegia.

Bi urtetik bost urtera arteko haurrek Mari kaleko geletan ere ikasteko aukera izango dute. Hamabi urteak bete artekoa, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, DBH, eraikuntza berrian emango dira eta batxilergo nahiz moduluak Institutuan kokatuko dira.

Eraikinaren banaketa

Beheko solairua amankomuna izanik, lehen eta bigarren solairuetan banaketa bat emango da. Ezker-eskuin, alde batean Lehen Hezkuntzakoak egongo dira, eta bestean DBHkoak. Hala, eta banaketa hau tarteko, Ayra Durex aldetik egin den sarrera nagusiaz gain, sarrera bana jarri da ezker eta eskuineko ertzetan.

Bestalde, inSTITUTEAREKIN komunikatuta egonda, polikiroldegitik

bueltan ibili beharrik ez da izango eraikuntza berrira joateko, eskola esparrura Institutu bertatik sartu ahal izango baita. Aparkalekua, berriz, beste aldean izango da.

Erreformatoren eraginak

Plan berriaren aldaketarik nabarmenena DBH da. Izan ere lehen zortzigarren mailan graduatua jasotzen baldin bazen, orain derrigorrezkoa izango da hamasei urte arte ikastea, DBH amaitu arte.

Ondorioz, batxilergoa bi urtetara murriztuko da, BUP eta REM desagertu egingo dira, eta LOGSE deritzaion batxilergoa egiteko aukera bakarrik egongo da.

Aldaketak medio, datorren urterako batxilergoa egiterik eskatuko ez duen modulu bat jartzeko asmoa dute, elikadurari buruzkoa.

Batxilergoan berriz, hiru aukera izango dituzte: gizartekoa,

teknologikoa eta zientifikoa. Eta honen ondoren, unibertsitatara joateko edota goi mailako moduluren bat egiteko aukera izango dute Zumaiko gazteek. Goi mailako moduluen artean automatikak eta administratza eskainiko ditu Herri Eskolak.

Datorren ikasturtea eraikuntza berrian ematea espero da

Zumaian erreforma jada indarrean dago eta oraindik REM ematen ari den klaseren bat edo beste kenduta, gainontzeko guztiek plan berrian dihardute. Pare bat urte barru ez da plan zaharraren arrastorik geratuko.

Bestetik, eta hizkuntzari dagokionez, aipagarria da D eredua soilik emango dela, hau da, unibertsitatara iritsi arterainoko



Datorren urtean haurrak eskailera hauetan gora eta behera ibiliko dira.

Auto - Konponketak

ELKAR

Estazioko kalea

20750 ZUMAIA

Telefonoa: 860201



PEUGEOT



ikasketak, euskara hutsez egingo dituztela ikastetxe honetara doazen haurrek.

Zumaiako Herri Eskolan dabilzan ikasleek (mila inguru) eta ia ehun izatera iristen diren irakasleek, ordea, aldaketa nabarmena 98-99 ikasturtean somatuko dute, ordurako eraikuntza berria erabat amaiturik, prest egingo baita martxan hasteko. ■



Behoko solairuan areto handi bat egongo da.

Ikasleen banaketa eraikin ezberdinetan



DBH egin osteko aukerak



ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

JOSEBA OSSA

-ITZULPENAK-
euskara-gaztelera-katalana -
ingelese-frantsesa

Tel-Faxa: 148306-148065

MATE
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen
sendabidean



Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



IDEIA!




III. Baleike komiki lehiaketa



OSTEGUNA

JOER, GAUR EGUN, GAUZA BERRI BAT ASMATZA MIRARIA DA! ALE KOMPETENTZIAREKI!!



2. saria: Iñigo Sarasola (Gasteiz)

Ibilbidetxo bat Zumaian

Zumaia aldean badaude majina bat ibilaldi egiteko aukera, naturaz eta ingurugiro paregabeaz gozatuz. Normalean edozein zumaiarrek badauki hala dela, eta ondorengo lerroetan ibilbide hauetako bati buruz arituko naiz. Bertako historia ezagutzeko aukera ederra emango digute, gainera, hauetako ibilbide batzuek.

Adibidez, suposa ezazue Algorri aldera jotzen duzuela. Zer ikus daiteke inguru honetan?

Lehenik eta behin landaredian fijatuz gero ikusiko duzue kostaldeko haizeek eta itsasoaren «salitrearen» eraginez ez direla malda inguru horietan belar normalak hazten, egoera meteorologiko hauei egokitutako landareak baizik. Honek zera esan nahi du, zenbat eta Ardantzabidetik Algorri alderago joan, zuhaixka eta lore txiki eta bereziagoak topatuko dituzuela.

Beste alde batetik fauna edo animaliei dagokionez, baserrietako asto, oilo-oilar, zakur e.a. alde batera utziz, itsasaldera begiratzuz zer dago? Alde batetik kormoranak (ubarroiak) eta kaio klase ezberdinak (gutxienez hiru) ikus daitezke. Lehenengoak beren



hegalaldi biziakin eta bigarrenak taldeka beren lotarako lekuetara joanez edo besterik gabe zeruan biraka ikus ditzakegu.

Bestalde Itzurungo hondartzara begiratzuz oraintsu arte gizaki faunan ere fijatu gintezke: alde batetik, San Telmo partean nudistak eta pake pixka bat bilatzen duten jendea dago. Urertza eta marea jaisten geratzen den zatia gazteena da, baita jubilatuen ere, urertzean paseatzen orduak eta orduak igarotzen dituztenenak. Kantinaren behean surferrak eta paiperoak eta nola ez, ezin ahaztu dezakegu azpeiti-azkoitiarren fauna ere!


Azkenik eta amaiera moduan historia pixka bat erreparatuz; ba al zenekiten garai batean Zumaiako padura parrokiaren azpikaldetik (estankoa dagoen inguru horretatik) Ardantzabidera arte zela? Hau da, San Telmo ermitatik Ardantzabideko bailarara begiratzuz gero, dena urez estalita ikusiko genuke marea goian zegoenean, eta behera egitean basa eta txirla eta txitxare mordoa, eta seguruenik ere, egurrezko belauntziz beteriko portutxoren bat.

JOSU AIZPURUA
Urola Kosta Mankomunitatea



**inportaturiko erropa
eta artisautza**
Basadi 3 Zumaia

TXOKOA
T
B
E
R
N
A



*Artadi
Auzoa*
86 21 89



AIZPURUA
L
I
B
R
U
D
E
N
D
O
P
A
R
I
A
K

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefona: 861569
20750 ZUMAILA

Estimuloak eta ERAKARPEN **SEX**uala

«Ez dakit zergatik, baina gustatzen zait». Hainbeste aldiz erabiltzen den espresio honek pertsona askok beren gusto sexualetaz dakiten guztia biltzen du. Hau da ezer gutxi, edo ezer ere ez.

Egia da badaudela faktore batzuk, eta hauetara sarri jotzen dugu norbaitek erakartzen gaituela esan edo espresatu behar dugunean.: «hain begi politak ditu», «hain jatorra da»; baina topiko hauek albo batera utzita, oso zaila da erakarpén horren oinarria non dagoen jakitea.

Ezjakintasun honen arrazoia da ia ezinezkoa zaigula gure zerebroak prozesatu dituen datu guztiak aztertzea, analizatzea. Datu hauetatik ondorioztatzen da atzo bertan aurkeztu ziguten gizon edo emakume hura gustatzen zaigula, besterik gabe.


Garbi dago zerebroak ez dituela instant batean hartutako

datuak bakarrik bereganatu, baizik eta bere oroimen zirkuitu guztiez baliatu da.

Iraganeko gure esperientzia guztiak ebaluatu, erakartzen gaituena gizartean ezarritako patroiekin konparatu, gure baloreen ordena erreparatu eta beste pertsona horren akats eta kualitateen aurrean jarri ditu, eta azkenean, gure aukerak eta espektatibak aztertzeraz jo du,

amaieran «O.K.» mezua bidali arte.

Zorionez, gu ez gara konturatzen prozesu guzti hau ematen denean. Benetan zeharo nekagarria izango litzateke. Baina oso interesgarria izan daiteke datu guzti hauek isolatu eta banan-banan analizatzea, giza-banako bakoitzaren lehen-tasunei nola eragiten dieten ikusi ahal izateko.



ITZURUN

KIROLOAK

Amaiako plaza, 13
 Telef. 860758
 20750 ZUMAIA

 **GAZTE, S.L.**
 ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA Era guztietako instalazioak
 etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Izaga 1, behea **Tailerra: Estazioko kalea 24**
Tel.-Faxa: 143402 **Tel. mugikorra: 908-143409**

AHOLKULARITZA
JRURE

GESTORIA

Erribera,17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

AUTOS ZUMAIA
 Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45
Tel. 861485

English School **Harvest** Helbide berria!
 Orain Musika Eskolaren aurrean!!
 San Jose 11 bis Tel. 143334



LOLI VAZQUEZ

Neri umeek ez didate molestatzen, baina beraientzat hobe da eskolan egotea, ze ikasten egoten dira eta hobeto daude.



PELLO AZKUE

Lasaitasun handia ematen dute eskolan daudenian, fijo. Arratsaldetan 5etan igertzen da berriz ere karga. Irail hasieran danian igertzen da bajonazoa, oso kuriozosa da.



MARI KARMEN URBIETA

Eskolan daudenian beste ordutegi batzuk edukitzen dituzte. Oporretan daudenian berandu jaikitzen dira eta gosalduek ere berandu... Hala ere udaran ondo moldatzen gera, ze ludotekara juten da txikia eta oso gustora ibiltzen da.

Gurasoek zer nahiago duzue: seme-alabak oporretan ala eskolan?



JOSE IGNACIO GARCIA

Ez neukan gogorik umeak eskolara joan zitezen, baina egia da lasaitasun handia ematen dutela. Udaran gerra asko ematen dute!



MARTIN RODRIGUEZ

Orain hasi da ikastolan eta beldurra genun lehen egunetan faltan botako gintuela, baina ez, gustora joaten da. Guk nahiago dugu haurra eskolan dagoen garaia, ze asko lotzen dute eta beste gauza batzuk egiteko aukera izaten dugu horrela.



JONI YEREGUI

Nik hiru ume dauzkat. Udaran lehenbiziko astia izaten da zorarena, udarari martxa hartu arte. Umeak eskolan daudenian ni askoz lasaio egoten naiz, baina beraiek ere bai, ze udaran hasten dira esanez aspertu egiten direla...



JOSEFA BENITEZ

Nik ez daukat ume txikirik eskolan, baina nahiz eta udaran kalean ibiltzen direnien eskandaloa montatzen duten, neri ez didate molestatzen. Orain hala ere lasaitasun gehiago igertzen da.



GILANO
LIBURUDENDA

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe 7
Tel: 14 31 91



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxes. 860169



ARRAIN ETA
MARISKOAK

MARES

BARAZKIAK
ETA
AURREZ
PRESTATUTAKO
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

I. Zakila Bira lasterketa

Korrikalariek hogeik kilometroko ibilbidea osatu beharko dute

Urriak 4 larunbatean korrituko da I. Zakila Bira lasterketa hau. Ibilbide hau normalean beste lasterketa batzuk prestatzeko egin ohi da, Behobia-Donostia esate baterako. Baina oraingoan zumaiar afizionatu batzuen ekimenez zakila buelta deitzen diogun zirkuitua bera proba ofizial bilakatu zaigu.

I. Zakila Bira hau nondik nora sortu den jakiteko korrikarako afizio eta praktikatzaile finak diren zumaiar batzuegana joan beharko ginatke. Eta horrela egin dugu, beste zenbaitekin antolatzaile lanetan diharduen Bittor Olaizolarekin izan baikara, proba honi buruzko xehetasunak azal diezazkigun.

Olaizolak aipatu digunez, lasterketa hau antolatzeko asmoa aspalditik datorkie. «Korrikarako afizionatuak garen asko bildu eta zakila buelta lasterketa ofizial bezela antolatzeko posibilitatea aztertu genuen». Eta hasiera batean asmo hutsa zena badirudi egia bihurtuko dela.

Zakila buelta propiyo deitzen zaion zirkuituak 16 kilometro ditu, baina orotara egin behar diren 20 kilometroak osatzeko Zumaiako kaleetatik zehar lau bat kilometro korritu beharko dira. Pare bat irten ondoren eta beste bi gutxi-gorabehera bueltatzerakoan.



Kanpotik ere jende pixka bat etortzea espero da.

Proba erabat herrikoia da; ez da nahi izan inolaz ere, kalitate handiko partaidetza bat biltzea, baizik eta herrikoi kutsu hori bultzatzea hain zuzen.

Lasterketa erabat herrikoia da. Helburua ez du kalitatezko partaidetza izatea

Hau horrela izanik, banatuko diren sariak ere ez dira handiak eta ugari izango. Bai emakumezkoetan eta bai gizonezkoetan lehen hiru postuetan sailkatzen direnentzat garaikur bana egongo da, baina besterik gabe. Bestalde, Aizarnazabaleko Udalak bailarako lehen hiru korrikalarientzat ere hiru sari gordeko ditu.

Izena proba hasi baino ordu erdi baino lehen eman ahal izango da eta horretarako 1.000 pezeta

ordaindu beharko da. Izena polikiroldegian edo lasterketa egunean Oxford aretoan bertan eman dezakezue. Trukean lasterkariek kamixeta bana jasoko dute.

Partehartzaileek beren lana arratsaldeko 5etan hasi beharko dute honako ibilbidea hau jarraituz: taxi geltokian hasi, Zumaiako kaleetatik zirkuitu txiki bat korritu eta gero herritik irtengo dira Arroa aldera; hemendik Iraeta, Aizarnazabal, Muniosoro, Oikia, Bedua eta berriro Zumaiara. Helmuga puntua Oxford areto parean kokatuko da.

Argazki lehiaketa

Lasterketako argazkiekin lehiaketa bat egingo da. Bi sari izango dira: batetik kaleko jendeak emango duena eta bestetik, argazkigintzan adituak direnek eskainiko dutena.

Alberdi
GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155

Larrañaga
Juanjo

BASADI-TUSTATEGUIA, 4-A
ZUMAIAR
TEL. 862061

HARATTEGIA
URDATTEGIA

ENTER INFORMATIKA
BALTASAR DE ETXABE z/g
ZUMAIAR
☎: 86.11.75
☎: 86.05.50

ORDENAGAILU SALMENTA
SERBITZU TEKNIKOAK
HARDWARE ETA
SOFTWARE
INFORMATIKAKO KURTZOAK





Gehiago ordaindu behar plaierotan jokatzeko

Urtebete gehiagoz badatorkigu plaierotako futbol txapelketa. Aurten gainera berrikuntza bat edo beste izango da, seguruenik partehartzaileei grazi handiegirik egin ez dien nobedade bat hain zuzen ere.

Aurtengo plaieroetan parte hartu ahal izateko, gehiago ordaindu behar izango dute talde ezberdinek. Denera, 35.000 pezeta (gehi 2.000 pta gehiago pertsona bakoitzaren seguruagatik), iaz baino 10.000 pezeta gehiago.

Igoera hau batez ere fiantza ordaindu behar izateagatik dator. Aurreko urteetan ez da horrelakorik egin behar izan, baina antolatzaileen esanetan aurten jadanik beharrezkoa izan da hau egitea.

Honen arrazoia da, antolaketa, diziplina eta zigor arazoentzako babes ekonomiko bat izatea. Era honetan, zerbait gertatuz gero ere fiantza hori erabiliko lukete seguru gisa. Hori bai, talderen batek

Udazkenean sartu orduko badatoz berri ere plaieroak.



arazorik izan ezean denboraldi amaieran fiantzako diru hori berreskuratzeke ahalmena izango luke.

Txapelketa hilabete honetan hasiko da eta San Telmotako festak bitartean luzatuko da. Garai horretan jokatu dira plaierotako azken norgehiagokak.

Jokatutako azken edizioan azpeitiarrak nagusi izan genituen Ligako txapelketari dagokionez behintzat. Landeta Taldea suertatu zen garaile finalean Axier Kirolak talde zumaiarra gainditu ondoren. Espero dezagun ordea aurten berdin ez gertatzea, eta zumaiarrak irabaztea txapelketa.

Laugarrengoa ote?

Zalla taldea laugarren aldiz lehiatuko da Zarauzko plairo txapelketan ia ezinezkoa gertatzen ari zaion lehen postu hori behingoz irabazteko asmo biziz.

Kostatzen ari zaie txapela lortzea, nahiz eta beti hor dabilzan behatz puntekin ukitzen. Lehen agerpenean final erdietan kanpora, iaz finalean penaltietan galdu, azken txapelketan berriro finalean galtzaile... Orain hasiko den txapelketa honetan ez dute berriro huts egiteko gogorik izango.



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

AZKUE

Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780



MENDI - ONDO
ELEKTRIZITATEA

Axular 14
20750 ZUMAIA

Telefonoak:
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
- * Banakoak
- * Kolektiboak
- * Satelite bidezkoak
- Atezaia automatikoak
- Eta abar.

Itzurun
ATEAK

Itzurun zuhaitzbidea 2

Tel: 861565

143446

ZUMAIA

Ibon & Gotzon

Enbildarrak nagusi ditugu kirol kontuetan, antza. Bata, Ibon, Arratek fitxatu berria du eskubaloian, eta bestea, Gotzon, zesta puntako Munduko Txapelketan ibili da, dagoeneko lehen fasean kanporatu badute ere. Biak aurrez aurre jarri ditugu.

-(Ibon) Zer suposatu du zuretzat munduko txapelketa jokatzek?

Espanian jokatzeko denborarik garrantzitsuena da eta 20 urtekin jokatzeko ba neretzat pribilegio bat da.

-Profesionaletan urtebete eskas eginda, espero al zenuen hain goian ibiltzea?

Hasi nintzenean ez, baina gero ondo xamar hasi nintzen jokatzeko eta ikusten dezu, azkenean mundialean.

-Orain famosua zerala «txapa» handia sartzen al dizu jendeak?

Ba, ke ba. Jende etorri eta zaharrak galdetzen didate noiz dauzkadan partidua, baina bestela ez didate agobiatzen gehiegi. Ez det arazorik zentzu honetan.

-(Gotzon). Arraten jokatzeko aurrerapausoa al da zuretzat?

Bai, aurrerapauso bezala hartu daiteke. Aukera orain iritsi zait eta espero det ondo aprobetxatzea.

-Arrasate eta Bidasoan ibili zera. Arrate talde hauen aldean ezberdina al da?

Klub bakoitzak bere gauza onak eta txarrak dauzka. Bidasoa eta Arrate oso ezberdinak dira mentalidade aldetik. Bidasoa askoz profesionalagoa da.

-Eskubaloia hobby bezelako bat da zuretzat edo profesionalerara igotzeko asmoa dezu etorkizunean?

Oraingoz hobby bezela hartzen det. Arrasaten ikasten ari naiz eta gero estudioak amaitu ondoren, aukera sortzen bazait ba... orduan pentsatuko nuke.



Enbildarrak zein baino zein indartsuago.

Laburrak

Arraunean ondo

Traineru denboraldia amaitu da eta zumaiarrek egindako lana baloratu behar badugu, ezin dezakegu esan inolaz ere denboraldi kaxkarra egin dutenik, ezta gutxiagorik ere.

Euskal Ligan sartzea lortu zuten honek ekarri zizkieten onura eta abantaila guztiakin. Hau gutxi balitz gainera, aurtengoan bandera bat irabaztea lortu dute, Errioxakoa hain zuzen ere.

Egia esan, garaipen honek ez du balio handiegirik beste partehartzaileen kalitateari begiratzen badiogu behintzat. Dena den ez zaie meriturik kendu behar, eta hasiera batean faborito ziren arren, hori horrela ez zela argi eta garbi erakutsi zuten.

Kontxan zerbait gehiago egitea espero genuen denok, baina datorren urtean beharko du izan.

Eskolarteko txapelketak

Ikasturtea hasita dagoeneko, Zumaiako eskola ezberdinetako haur guztiak ere martxan jarriko dira.

Asteburuetan herriko ikastetxe, polikiroldegi eta futbol zelaian arituko dira jo eta ke kirol ezberdinetan lehiatzen. Futbito, eskubaloia, eta beste hainbat kirolatan parte hartu ahal izango dute.

SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

-Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
-Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
-Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416



Loitz

Erribera 4
Tel./Fax:
143422

*Eskola eta
bulegorako materiala
*Enkoaderazioak
*Fax publikoa
*Aldizkari eta opariak

Zuzpertu, euskal kultura bultzatzeko talde berria

Kultur talde berri bat eratu zaigu herrian. Gazte kuadrila baten ekimenez eta herrian euskal kultura bultzatzeko asmoz, Zuzpertu izena daraman taldea sortu da.

Taldea nola sortu zen jakiteko bertako partaide batengana jo dugu, Egoitz Lizasorengana hain zuzen ere. Berak azaldu digunez, herrian euskal kultura, ohitura eta euskera bera bultzatzeko talde baten beharra ikusten zuten eta helburu horrekin jaio dela Zuzpertu kultur taldea.

Momentu hauetan zazpi, zortzi partaide dira baina denbora aurrera joan ahala, kopurua gehiago areagotzeko itxaropena dute.

Egoitzen esanetan, «taldea gazteek osatzen badugu ere, edozein pertsona inguratu daiteke bertara, inolako trabarik gabe, gainera. Guk ez dizkiogu inori inolaz ere atek itxiko».

Beren helburua argi utzita, horren alde ahalik eta lan gehien



Inda-Mendin egindako afariarekin hasi da martxan Zuzpertu taldea.

egitea nahi dute. Dena den, ez dute epe luzera begiratzen; bidea poliki-poliki eraikitzen hasi nahi dute, ekintza zehatzak antolatuz eta gauza gehiagotan zentratu gabe.

«Ideologia aldetik erabat irekiak gera»

Ideologia aldetik ere erabat irekiak direla garbi utzi nahi dute. «Guri ez zaigu inporta ze partidu politikoetakoa den edota politikan sartua dagoen edo ez. Guri ajola

digun gauza bakarra da, berriro esaten det, euskal kulturaren alde lan egitea herrian, eta ahal izanez gero berrindartzea».

Momentuz, lehenengo ekintza burutu dute. Irailaren 20an aurkezpen gisa festa egun bat antolatu zuten. Arratsaldean trikitilariekin kalejira izan zen eta gauean bertso afaria antolatu zuten, Arozena eta Silveira nafarrekin.

Momentuz hauxe izan da burutu duten ekintza bakarra; ikusi egin behar hemendik aurrera zer lan egiten duten. ■

Jesuskoa
Faletxea

Apuca 86 17 39 • Urdin Zumaia

xirula

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
Tel. 861705

EGUZKI
PUB

KOKTEL
BEREZIAK

Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

Huntza, o.k.

DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

SERIGRAFIA

KUKUTZ

baltasar
etxabe 7 ZUMAIA

Tel: 860569

Azkué Autoak

Estazioko kalea, 19 20750 ZUMAIA

Telefona: 861433
Fax: 861067

ZINE FORUM

udazkeneko zikloa

urriaren 9an

BEAUTIFUL GIRLS

Zuz: Ted Demme

Akt: Timothy Hutton, Uma Thurman, Matt Dillon, Natalie Portman



1996. urteko Donostiako zinemaldian aurkeztutako filme estatubatuar honek ikusle guztiak txundituta uti zituen. Pelikula asko daude gozoa eta garratza nahasten dituztenak, baina gutxi komedia eta drama honek bezain ongi batzen dituenak.

Istoriaa Timothy Hutton egun batzuk igarotzera bere jaioterrira bueltatzen denean hasten da. Hau tabernetan pianoa jotzen aritzen den musikari bat da, eta krisialdi batean aurkitzen da: 30 urtetik gora izanik, ez du lan finkorik eta berekin ezkontzekotan den neska ez dago ziur maite duen ala ez. Herrira bueltatzean, bere betiko lagunekin aurkituko da. Hauek gaua tabernetan pasa eta nahiko bizitza aspergarriak dituzten mutilak dira. Baina oporraldi horretan gazte hauen bizitza (egun batzutan behintzat) zertxobait aldatuko duen zerbait gertatuko da. Alde batetik Uma Thurman bere lehengusua bixitatzen joango da, herriko mutil denak guardian jarriz, eta bestetik 13 urteko neskatxa baten agerraldia, Timothy Hutton gizarajoa guztiz maiteminduz.

Filme bikain honek duen onena, istorioaz gain, aktoreak dira. Benetan ederki aritzen dira denak, baina bereziki Timothy Hutton beteranoa (nahiz eta nahiko gaztea izan) eta Natalie Portman harrigarria. 15 urte besterik ez baditu ere, azaltzen den bakoitzean filme guztia bereganatzen du. Pelikula benetan gomendagarria.

urriaren 23an

VOLVER A VIVIR (1996)

Zuz: Nick Cassavetes

Akt: Gena Rowlands, Marisa Tomei, Gerard Depardieu

Mildred (Gena Rowlands) seme-alabek utzi duten alargun bat da. Urteak aurrera doazen heinean, bera gero eta bakartiago sentitzen da eta era berean, bere existentziaren hutsunearen aurrean aurkitzen da. Gauzak horrela, auzokide batekin topo egin (Marisa Tomei), eta hau lanera joaten denean, honen haurra zaintzeari ekiten dio. Diru arazorik izan ez duen emakume honen barruan umearikiko eta hezkuntza haundirik ez duen amarekiko maitasun sentimendu bat sortzen da. Aldi berean bera baino gazteagoa den kamioilari bat (Gerard Depardieu) sartzen da bere bizitzan. Mildred bidegurutze baten aurrean aurkitzen da: bere adineko emakume baten «bizitza normala» aurrera eraman, edo etorkizun gutxi izan dezakeen abentura bat bizi.

“Volver a vivir” Nick Cassavetesek idatzi eta zuzendu duen lehen filmea da. Zuzendari honi buruz idazteko ezinbestekoa da bere aitaz, John Cassavetes buruz aritzea. John “Amerikar Zine berriko” zuzendari onena eta zine independenteko buru kontsideratua dago. Honek, bere emaztea Gene Rowlandsekin batera, sentimenduak protagonistatzat zituzten filme bikain batzuk egin zituen. Maitasuna eta maitasun eza ziren pelikula hauetan gai garrantzitsuena. Nick-ek ez du inongo dudarik izan gizakiak eta hauen sentimenduak bere filmearen buruan jartzeko. Horretarako ama, Gena (beti bezala lan izugarria eginaz), hartu du protagonistatzat, oso aktore gutxi baitaude pertsonen barne arazoak emakume honek bezain ongi erakusten dituztenak.




goofy
HAUR JANTZIAK
Amaia plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA



Augustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zubaitz-bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefonua: 862430

julio curiel
GF
PELLIQUERO

GIZONEZKOENTZAT
ILE-APAINDEGIA

Erribera kalea 23



ANTZERKI EMANALDIA

Urriaren 4an
Aita Mari zinean
Gaueko 10etan

Tanttakaren eskutik...

El Florido Pensil

ikuskitunak

Urriaren 11n arratsaldeko 8,30etan
Parrokian

ZARAUTZ abesbatzaren saioa

Urriaren 22an

EUSKARAOKEA

(informazioa ikastetxeetan)

Urriaren 25ean arratsaldeko 7,30etan
Beheko plazan

TXISTULARI ALARDEA

Azaroaren 7-9 asteburuan

ANGEL DE ENBILi omenaldia

Pola de Sieroko abesbatzarekin topaketa.

Kontzertua, Azaroaren 8an

ikastaroak

kontrol mentala

Larunbatez 10etan Forondan,
Txanda berria azaroan.
Izen ematea: urriaren 24a arte.

lore lehorrak

Urriaren 6an hasita,
astelehen eta asteazkenez,
5.30etatik 7etara.

pintura tailerra

Urria-maiatza bitartean.

argazki ikastaroak

Azaroan

erakusketak


itsasuntzien maketak

Beheko Plaza elkarteetan,
irailaren 26tik urriaren 31
bitartean

ERROTA
ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA


JUSTA
TABERNA
EGUNEROKO
BAZKARIAK
Erribera kalea 20

IHINTZA
taberna
Tf: 860472
Ortega y Gasset, 3



NIKOL-ENEA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

GURE TXOKOA

TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

Zumaia 650 hitzaldi zikloa

Foronda kultur etxean,
arratsaldeko 7etan

Urriaren 17an, **Miren Ayerbe**

«Zumaiaren behinolako herri egitura»

Urriaren 24ean, **Ana Echavarria**

«Ermitak»

IPUIN KONTAKETAK

Haurren liburutegian

Arratsaldeko 6etan

Urriaren 2an eta 30ean

6tik 9 urterako umeentzat

ASTE MIKOLOGIKOA



7an eta 9an, Oxford aretoan,
arratsaldeko 7,30etan,

Hitzaldiak,

Larunbatean, hilak 11, goizeko
8etan perretxikuak biltzeko

irteera (autobusean)

Igandean, 12an, goiz eta
arratsaldez Odieta pilotalekuan

erakusketa,

DIAPOSITIBA EMANALDIAK

Foronda kultur etxean

Arratsaldeko 7,30etan

Urriaren 10ean

Javier Juanes

Udako jaiak Gipuzkoan

Azaroaren 7an

Jose Ramon Agirre

Itsasoari begira



Euskaraz

Arian ari
Haize kontra
Hil aurreko begirada
Gasteizko hondartzak
Gandi

IRAKURKETARAKO AUKERAK



Patxi Zabaleta
Patxi Iturregi
Ross Macdonald
Xabier Montoia
Aitor Zuberogoitia

Sostiene Pereira
Café Nostalgia
La corona del mundo
El Capitán Alatriste
La hija del canibal



Gaztelera

Antonio Tabucchi
Zoé Valdés
Peter Berling
A. Perez Reverte
Rosa Montero

Haur/Gaztetxoak

Ni ete nire kontuak
Rue Morgueko hilketak
Etorriko zara nirekin?
Pirata jokoak

Amado G. Ugarte
Edgar Allan Poe
Seve Calleja
Seve Calleja

expert
ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua

Etxezarreta 6
Tel. 861078 ZUMAIA

EGOKI

**Erloju eta
bitxidenda**

E. Gurrutxaga plazan

ARGIA



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

Ajopuerro Kolinegro

Argiñanoren menuren bat ote?

Hi, zein dituk/n «Ajopurru» edo direlako hauek? Ohizko galdera da hau talde honen kontzertuetako kartelak irakurtzen dituztenen artean. Talde xeble eta orijinala, azken aldi honetan dexentetan ikusi eta entzun izan ditugu Zumaia txoko ezberdinetan.

-Nondik dator izen hau?

Forgesen pertsonaietarikoa bat da. Izena asko gustatu zitzaigun eta marrazkia ere bai. Puntu guzti hauek bildu genituen eta puntu elkarketa prozesuan buru-belarri sartu ginen.

-Nortzuk osatzen dezue taldea?

Hasera batean, Gartxi, Mojo eta Uhin elkartu ginen lokalean kontzertu baterako eta bost minututan prestatutako bi abesti jo genituen. Gero «serioago» hartu genuen eta llargin debutatu, Ajopuerro Kolinegro izenarekin.

Azkenengo bi kontzertuak bi partaide gehiagorekin jo ditugu. Taldea honela geratu da: Gartxi gitarraz eta kantatuz, Mojok baxua jotzen du, Uhinek bateria, Iñigok tronboia eta Sismak tronpeta. Azken kontzertuan talde berri bat sortu zen, «Ane Elektra eta



Gumersinda», trikitixarekin Anek landutu ditugu, baina letradunak bi besterik ez dira. Beste guztiak izenburuaren arabera inprobisatutako letrak dira. Letra dutenak oraindik ez ditugu ikasi.

Esaten deguna esateko gaztelaraz hobeto moldatzen gera

-Zer diote zuen abestiek?

Kanten izenburuak ondo landuta ditugu, baina letradunak bi besterik ez dira. Beste guztiak izenburuaren arabera inprobisatutako letrak dira. Letra dutenak oraindik ez ditugu ikasi.

-Zergatik kantatzen dezue gaztelaraz?

Esaten deguna esateko gaztelaraz hobeto moldatzen gera. AEK-ko kartelak honen adibide garbiak dira. Me gus-

tas = ?. Hala ere euskeraz ere abestu ohi degu.

-Asko entsaiatzen al dezue?

Hilabetean bi aldiz edo, gutxi-gorabehera. Baina kontzerturako egunero entsaiatu degu azken astean.

-Talderen batekin erlazionatzen al dezue zuen musika?

«El equipo A» asko atsegin degu. Gora Anibal eta M.A!

-Zein helbururekin joaten zerate kontzertuetara?

Ondo pasatzera joaten gera. Papertxoak banatu, mozarrotu, espektakulu txiki bat montatu, eta listo!

-Aurrera begira?

Beti egon behar gera aurrera begira, bestela... estropozo! ■



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefona: 862073

20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 143143

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1
Juan Belmonte, 15
Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330

anari

aire berria euskal musikan


“Gaua da, kotxean sartzen naiz, euri malkoak parabrisan...”. honela hasten da lehenengo kantua Anari abeslari azkoitiarraren konpaktoan. Duela hilabete batzuk kaleratu zen eta Euskal Herriko musika eszenari eskertzeko moduko arnasa ekarri zion, freskoa ez dakit, baina behintzat desberdina.

Konpaktoa kaleratu aurretik zuzenean ikusteko aukera izan genuen: neska bat gitarra akustiko soil baten laguntzaz; hori zen eskaintzen zitzaiguna, ximplea itxura batera, zuzena, garai bateko kantautoreak bezala, baina gaur egungo artista berriagoen soinueta edanaz: PJ Harvey, Palace eta honelako jende erdi independentea.

«Ez dut ukatzen eskaintza honek nolabaiteko sentsazio voyeuristiko bat sortu ez zidanik»

Gitarra eta ahotsa bakarrik izatean kantuen hitzak garrantzi handia hartzen dute, hor azaltzen ditu bere sentipenik intimoenak, publikoaren aurrean adornorik gabe agertzen direnak: biluzik.

Neri nahiko sintzeroa iruditu zitzaidan bere eskaintza, baina ez dut ukatzen nolabaiteko sentsazio voyeuristiko bat sortu ez zidanik; publiko guztia ateko zerraila batetik begira egongo bagina bezala.



Beranduago 6Nemen9 taldeko kide batek aipatzen zuen, berak erderaz esaten den bezala “vergüenza ajena” sentitzen zuela. Agian bai, letrak pixka bat adoleszenteak dira, eta gai edo sentimendu berdin baten inguruan jiran dabilta guziak; artikulua hasierako kantu zatiak sortzen duen irudi hori berbera: bakardadea, desamorea edo dena delakoa.

Hala ere ausartagoa da honelako proposamen bat, gitarra distorsionatu eta bateria zaratatsuez sortutako horma baten atzean ezkutatzea baino (ez naiz hemen 6Nemen9ez ari, horiek ere bere mundu pertsonala baitute, eta guztiz interesgarria) edo letretan betiko lau topikoetat hitz egitea baino, intsumisioa dela, edo gai politikoak direla. Batez ere euskal Herriko kasuan bezala gehiegi erabiliak izan

direnean gai hauek eta hasieran izan zezaketen indar guztia galdu dutenean. Garai batean iraultzailea eta erradikala zena jada araua eta topikoa bilakatzen denean, akabo: hobe beste zerbaitetaz aritzea, edo behintzat gaiak beste era batean tratatuaz.

Anari berak elkarriketaren batean esaten zuen berarentzat adibidez Mikel Laboa kañeroagoa zela Su ta Gar baino.

Batzuek ulertuko dute zer esan nahi zuen eta beste batzuek berriz ez. Ez dago esaldi hortan Su ta Garren edo heavyaren kontra; berdin du heavya, folka edo indie popa izatea.

Egiten duen hortan sinesten duen jendea ziur leku guztietan dagoela; jende kañeroa musika kañeroa egiten, idealistak kantu batekin mundua aldatu nahi dutenak etab. etab.

Azken finean norbera bere buruarekin izan behar da sintzeroa lehendabizi, eta gero gainontzekoa bere kabuz etorriko da: publikoaren harrera, ona edo txarra, fama dirua, eguraldi ona, demokrazia, oporrak eta mundu ororako pakea (bitartean, ea Zumaian bere kontzerturen bat ikusteko aukerarik dugun), edo ez.

Jon Manzidor

ONCE

JOXE
MANUEL

Kupoiak tailer, etxe eta dendetara eramaten dira.

Tel: 862347-861001

ALAI AUZATEGIA, 2 - TLF: 143324



Motxian hi!

Zein: *Libe Ormazuri*
Zer: *AEK-ko irakaslea*
Nola: *Libetxo*

-ZENBAT LEKUTAN EGON ZERA BIZITZEN?

GASTEIZ, ZARAGOZA, SALVADOR ETA LIZARRAN.

-ZER IKASI ZENUN?

NEKAZARI INGENIERITZA TEKNIKOAK.

-ZURE BIZITZAKO HIRU GAUZA GARRANTZITSU ESAN.

LANA EZ BEHINTZAT. ONDO BIZI, EZAGUTU ETA IKASI

-ZER GORROTATZEN DEZU GEHIAGO?

EZ JAKITIA ZER EGIN, ASPERMENA..

-AMETS BAT?

BASERRI BATIAN BIZI.

-EUSKERA EDO EUSKARA.

EUSKERA.

-ASMAIZU?

A.- KANTATU

B.- DANTZATU

C.- EDANTU

-EZKONDU EDO HARRIMATU?

ARRIMATU.

-KOLETA NOIZ?

AURTEN NAHI DET. UZTEN ARI NAIZ ILIA

LUZATZEN.

-GOMENDA EZAZU PELIKULA BAT.

UN LUGAR EN EL MUNDO.

SALDU/EROSI

Macintosh Powerbook 145B ordenagailu portatila (+ teklatu eransgarria) salgai: 80.000 pta.
Style Writer II inprimagailua ere salgai: 15.000 pta.
Deitu 861224 telefonora.

AGURRAK

Ze uste zenuen ba, dana zekizuela?
Kriston erantzun gutxi dabez ondo. Ez izan alperrak ta etorri danak alfabetatzea!
Erribera 1 bis-behea.

Hamburger with double cheese. Hori esaten behintzat ikasiko huan, ezta Pordi? Laister arte. Txixapa.

20 kilometro egin beharra al dago Zakila korritzeko?

Ke patxa Wali, wixki irlandesa falta? Inpotente sentitzen zara. Gabonetan dana arreglauko da, lasai.

ESKERRIK ASKO!!

Hasi dugu ikasturtea eta baita ondo hasi ere. Eskerrak eman beharrean gaude AEK-kook berriz ere Zumaiako herriari, joan den hilaren 20an izan zen euskararen festa dela eta.

Eta nola ez aipatu hainbeste lan eman zuen hura ONDO atera zela, eta orain iritsi zaigu unea nolabait eskerrak emateko. Beraz, eta banan-banan ezin zaituztegunez izendatu. *Tabernari, epaimahaikide, elkarte, laguntzaile...* guztioi, "Txomin Agirre" AEK euskaltegiak eskerrik beroena luzatzen dizue zuen kideetasunagatik nahiz eta, tamalez, instituzioei eta Udaletxeari ezin berdina desio izan.

Bestalde, eta bukatzeko, urtean zehar Asmaizu lehiaketan parte hartu duzenoi ere beste horrenbeste, eskerrik asko erantzuteagatik.

Eta besterik gabe...

Euskara galduz gero, akabo Euskal Herria.

Zumaiako Txomin Agirre AEK euskaltegiko neskak

CARLIN

OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORJINALAK; HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453

BIZKOR

FOTOKOPIAK



-Enkoadernaketak
-Plastifikatseak
-Fax publikoa
-Bulegoko materiala

Basadi 1-1, beheko - Tf: 145120



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

LARRIALDIK

Basadi, 7 beheko
20750 ZUMAIKOA
Tel. 143310


-24 orduetan
Zeure etxean

Tel. mugikorra: 908-775508

EUSKAL MUSIKA

Berria, gaurkotuena,
betirako.

23 disko konpaktu
eta liburuxka bat
abestien hitzekin.



Irailaren 13tik aurrera
asteazken eta larunbatetan

Egunkaria + 550 pta.

KOSTA GAS



ZERBITZU OFIZIALA

Etxezarreta, 6
ZUMAIA

Tel. 86 10 78

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

- Butano
- Propano
- Gas Naturala



Lehiaketa Goxoa



Aurreko hilabeteko irabazleak MAIXA, SAIOA, MIRIAM, JON "MANTXI" eta XABIER "PIRU" izan ziren.

Kontzertuan jo zuten taldeak Po, Joxe Ripiau eta Todos Tus Muertos izan ziren. Azaldu ez zenarentzat agian ez zen tarta zatirik geratuko.

Zenbat kilometroko ibilbidea du Zakila Birak? Portzierto, ba al dakizu izen kurioso hau nondik datorren?

Bi galdera hauetako bat erantzuten duzuenon artean TXAPARTEGI GOZOTEGIAk emandako tarta zoragarri bat zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna Txapartegin bertan edota gure buzoian uztea urriaren 24a baino lehen. Zorte on!

